

2023ko Aberri Eguneko LABen adierazpena

EUSKAL ERREPUBLIKA POSIBLE EGIN DEZAGUN

Aberria: elkartasun eta elkar zaintzarako espazioa

Jendarte eraldaketan aritzen garenontzat, aberria ez da abstrakzio soil bat, elkarrekin bizitzeko eta ekiteko espazioa baizik.

Aberria bada elkarriketarako esparru bat, euskara gure berezko hizkuntzaren bidez garatzen den elkarriketa.

Aberria bada, halaber, elkar bizitza demokratikorako espazio bat, gatazka armatu luze baten ondoren eraikitzen ari garena.

Aberria da, herri burujabetza, pertsona librez osatutako Errepublika librea, eratzeko gunea. Eta aberria bada, nola ez, elkartasun eta elkar zaintzarako espazioa.

Bi hautu estrategiko elkarren arteko lehian

Egungo bidegurutze historikoan badira bi hautu estrategiko elkarren lehian. Lehena, krisi anizkoitzari betiko errezetekin erantzutea, Kapitalaren mesedetan herriak eta langileak desjabetuz eta ekosistemak hondatuz. Horixe da elite ekonomikoen hautua. Horixe da Europako herriak elkarren aurka jarri dituen gerra estrategiaren helburua.

Bigarren aukera, herri guztien eskubideak aintzat hartuko dituen nazioarteko harreman berriak sortzea. Pertsona guztien eskubideak erdigunean jarriko dituen eredu sozioekonomiko berrirako trantsizioa sustatzea. Hauxe da gure hautua eta horren alde emango dugu gure onena.

Eredu berriaren oinarria: banaketa hirukoitza

Eredu sozioekonomiko berria banaketa hirukoitzan oinarritzea proposatzen du LABek: enpleguaren banaketa, zaintza lanen banaketa eta ondasunaren banaketa.

Euskal herritar guztiok (bertan jaioak nahiz beste herrialde batzuetatik heldutakoak) badugu ondasunaren sorreran parte hartzeko ardura eta eskubidea, bai 30 orduko enplegu bermatuaren bidez baita zaintza lanen banaketa erantzunkidearen bidez.

Eta era berean, denok dugu sortutako ondasunaz baliatzeko beharra eta eskubidea, 1.400 euroko gutxieneko diru-sarreraren bidez nahiz osasuna, zaintza edota hezkuntza eskubideak bermatuko dituzten doako zerbitzu publikoen bidez.

Euskal Herrian posible egin dezagun

Euskal Errepublika independentea dugu ortzimugan. Euskal Errepublika da herri burujabetzarako bermea, bizi erdigunean jarriko duen eredu berria eraikitzeko aukera.

Euskal Errepublika, aldarrikapena ez ezik, egitasmo politiko partekatua behar du izan. Eguneroko praktika independentista eta eraldatzailearen bidez sustatuko dugun egitasmoa.

Gaurdanik hasita, Madril eta Parisen ezinezkoak diren aldaketa sozialak Euskal Herrian posible egiteko ibilbidea egin beharra dago. Politika publikoen norabidea lehiatuz eta burujabetzaren bidean aurrera eginez.

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta neurri txikiagoan Ipar Euskal Herriko Euskal Elkargoak badituzte zerga eta aurrekontu politikari dagokionez zenbait eskumen eta horiek langile jendearen alde erabiltzeko interpelazio instituzionalean sakontzera doa LAB, langileen borroka esparru guztietara eramanez.

Halere bistan da aipatu eskumenak ez direla nahikoak eredu sozioekonomikoa eraldatu eta banaketa hirukoitza sustatzeko. Ereku ekonomiko eta laborala errotik aldatzeko tresna berriak behar ditugu, besteak beste Euskal Lan Kodea eta Euskal Gizarte Segurantzak, baita sistema publiko burujabea garatzeko ahalmen osoa. Euskal Errepublika independente baten norabidean estrategikoak diren estatu tresnak dira horiek. EAE, Nafarroa edota Ipar Euskal Herriko estatusen berrikuntzaz aritzera lehentasunez eskuratu beharrekoak.

Eraldaketerako urratsak

Euskal Herrian bada nazio eraikuntzaren eta banaketa politiken aldeko esparru sozial, sindikal eta politiko zabala. Berau egituratu eta eraginkortzea da erronka, Euskal Herria ardatz izango duen trantsizio feminista eta ekosozialista bultzatuz. Hori bideratuko duen akordio handi baten zain egon gabe, akordio txikiak egitea da urratsak emateko modurik onena.

Urrats horietako bat da Euskal Herriko Mugimendu Feministak proposatu duena: zainduak izateko eskubide unibertsalaren aitortza eta zaintza sistema publiko komunitarioaren eraikuntza. Greba feminista Orokorra aukera ona izango da elkar zaintzan oinarritutako aberria eraikitzeko.

Beste urrats bat, euskal pentsiodunen mugimenduak proposatutakoa: Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak gutxieneko pentsioa 1.080 euroraino osagarritzea. Edota, Gasteizko Legebiltzarrak onartutako mozioa, 1.400 euroko gutxieneko soldataren aldekoa.

Horrelako urratsek eraldatzen dute errealitatea, horrelako urratsak sustatzeko egin behar dugu borroka. Burujabetza aldarrikatu ez ezik, burujabetzarako ibilbidea eginez.

Aldarrikapen eta mobilizaziorako deia

Aipatutako irakurketan oinarrituz, Aherri Egunaren testuinguruan antolatutako ekimenetan parte hartzeko deia egiten du LABek.

- Ernaik Elorrion antolatutako Gazte Topagunearen baitan, Garbiñe Aranburu koordinatzaile orokorrak hitzaldia izango du.
- Euskal Herria Baterak Donostian antolatu duen ekitaldian Igor Arroyo koordinatzaile orokorrak eta Argitxu Dufau Ipar Euskal Herriko bozeramaileak parte hartuko dute.
- Bagira ekimenak Itsasun antolatutako ekitaldietan nahiz EH Bilduk Iruñean antolatutako manifestazioan ere LABeko ordezkariak bana izango da.

Euskal Herrian, 2023ko apirilaren 4an

Communiqué du syndicat Lab à l'occasion de l'Aberri Eguna 2023

RENDONS POSSIBLE LA RÉPUBLIQUE BASQUE

Aberria (la patrie) : un espace de solidarité et d'entraide

Pour nous qui travaillons à la transformation sociale, Aberria n'est pas une simple abstraction, c'est un espace de coexistence et d'action.

Aberria est un espace de dialogue, un dialogue développé à travers notre langue commune, l'Euskara.

Aberria est aussi un espace de vie démocratique que nous construisons après un long conflit armé.

Aberria est un espace de souveraineté populaire, pour une République libre, composée de personnes libres.

Et évidemment, Aberria est un espace de solidarité et d'entraide.

Deux choix stratégiques en concurrence

À la croisée des chemins actuels, deux choix stratégiques s'opposent. Le premier consiste à répondre aux multiples crises par les mêmes vieilles recettes, en expropriant les peuples et les travailleurs.euses, en détériorant les écosystèmes, au profit du Capital. C'est le choix des élites économiques. C'est l'objectif de la stratégie guerrière qui a monté les peuples d'Europe les uns contre les autres.

Le second est de créer de nouvelles relations internationales qui prennent en compte les droits de tous les peuples. C'est promouvoir la transition vers un nouveau modèle socioéconomique qui place les droits de tous les peuples au centre. C'est notre choix, et nous ferons de notre mieux pour y parvenir.

Base du nouveau modèle : la triple répartition

Le syndicat LAB propose que le nouveau modèle socioéconomique soit basé sur une triple répartition : la répartition de l'emploi, des soins et des richesses.

Tou.tes les citoyen.nes basques, né.es ici ou ailleurs, ont la responsabilité et le droit de participer à la création de richesse, tant par l'emploi garanti de 30 heures, que par le partage coresponsable des tâches de soins.

De même, nous avons tou.tes besoin et droit de profiter de la richesse générée sous la forme d'un revenu minimum de 1400 euros par mois ou encore à travers des services publics gratuits qui garantissent les droits à la santé, aux soins ou à l'éducation.

Faisons que cela soit possible en Euskal Herria

Une République basque indépendante se profile à l'horizon. La République basque est la garantie de la souveraineté populaire, la possibilité de construire un nouveau modèle qui place la vie au centre.

La République basque doit être, non seulement une revendication, mais aussi un projet politique partagé. Un projet que nous promouvons à travers la pratique indépendantiste et transformatrice du quotidien.

Dés d'aujourd'hui, il est nécessaire de parcourir le chemin pour rendre possible en Euskal Herria les changements sociaux qui sont impossibles à Madrid et à Paris. En défiant l'orientation des politiques publiques et avançant vers la souveraineté.

Le Gouvernement Basque, le Gouvernement de Navarre et, dans une moindre mesure, la Communauté d'Agglomération du Pays Basque disposent de compétences en matière de politique fiscale et budgétaire, dont LAB veut se saisir au profit des travailleuses, en étendant la lutte ouvrière à tous les domaines.

Cependant, il est évident que ces compétences ne sont pas suffisantes pour transformer le modèle socioéconomique et promouvoir la triple répartition. Nous avons besoin de nouveaux outils pour changer radicalement le domaine économique et professionnel, y compris le Code du Travail Basque et la Sécurité Sociale Basque, ou encore la pleine compétence de développer un système public souverain. Ce sont des dispositifs d'État stratégiques pour la constitution d'une République Basque indépendante. Des dispositions prioritaires dans le cadre du renouvellement des statuts de la CAPB, de la Navarre ou du Pays basque nord.

Vers la transformation

En Euskal Herria, il existe un large espace social, syndical et politique favorable à la construction nationale ainsi qu'aux politiques de répartition. Le défi est de le structurer et de le rendre efficace, en promouvant une transition féministe et écosocialiste centrée sur Euskal Herri. En attendant un pacte global, la meilleure façon d'avancer est de réaliser de petits accords transitoires.

L'une de ces avancées est proposée par le mouvement féministe d'Euskal Herria: la reconnaissance du droit universel à être soigné et la construction d'un système communautaire public de soins. La grève générale féministe sera l'occasion de construire une patrie fondée sur les soins mutuels.

Un pas supplémentaire, celui proposé par le mouvement des retraitées basques : que les gouvernements basque et navarrais imposent une pension minimale à hauteur de 1080 euros. Ou encore, dans la lignée de la motion votée au Parlement de Gasteiz, qu'un accord interprofessionnel visant à établir un salaire minimum de 1 400 euros soit obtenu.

Ce sont des mesures comme celles-ci qui transforment la réalité, et que nous devons promouvoir par la lutte. La souveraineté n'est pas seulement une revendication, nous devons cheminer vers elle.

Un appel à la revendication et à la mobilisation

Sur la base de cette lecture, le syndicat LAB appelle à participer aux initiatives organisées dans le cadre d'Aberri Eguna.

- Dans le cadre de Gazte Topagunea organisé par Ernai, la coordinatrice générale Garbiñe Aranburu tiendra une conférence.
- Le coordinateur général Igor Arroyo et la porte-parole d'Ipar Euskal Herria Argitxu Dufau participeront à l'événement organisé par Euskal Herria Batera à Donostia.
- Une délégation de LAB se rendra également à la manifestation organisée par l'initiative Bagira à Itsasu et à la manifestation organisée par EH Bildu à Iruña.

En Euskal Herri, le mardi 4 avril 2023